

#Nikerebai

raultza Txikien Akanpadan parte hartu nuen lehenengoz gizonezkoen arteko ikastaro/lantegi batean. Gehienok feministen lanak akuilaturik hurbildu ginelakoan nago, gehienongan sumatu nuen zerbait, –halako *mea culpa* bat?– egiteko gogoia.

Atera zen ondorioetako bat, nire ustez nagusia, izan zen, bortxatzaileak eta erasotzaileak ez direla hutsetik sortzen, gizonezkoen artean erantsirik ditugun jarrera-iruzkin-jokamolde-txiste-mikroeraso matxisten haztegitik baizik. Ekosistema horrek elikatzen du erasoa, erasotzailea. Gu, ekosistemako eragile aktibo ez garenean, hartzaile pasibo gara. Gizonezkoek, esaterako, ez ditugu gizonezkoak matxistatzat salatzen, normalean hori tokian tokiko feministari lagatzen diogu.

Oso interesgarria izan zen, baita ere, salaketa baten ondoren erasotzaile batekin zer lanketa egin eztabaidatzea. Hor, berriz ere, feministak dira –eta ez gizonezko erasotzailearen kuadrilla/familia, adibidez–, erasotzaileak laguntza psikologikoa hartu dezan eskatzen/bultzatzen dutenak.

Zer egin ahal dugu hegemonia-piramidearen puntako besaulkian eserita gauden gizonezko zuriok? Beharbada gure bizibidea erreparatu aurrena.



Ruben Sánchez Bakaikoa

IRAKASLEA

@arlotea

Hamabi urterekin herriko festetan neska bati atzetik hurbildu eta titiak ukitu nizkion, hamaseirekin beste bati ipurdia ukitu nion, koadrilakoekin neskak “sailkatu” ditut beren fisikoarengatik...

Beharbada “ni” –edo holakoetarako hain emankorra suertatzen den “nire lagun bat”– izan gara, gara, jarrera, iruzkin, txiste eta mikro eraso matxistak egin ditugunak; baita gure ondoan

ikusi, eta anaia, koadrilako laguna edo aitari ezer esan ez diogunak. Izan ere, emakume guztiek inoiz #nikerebai bat jasan badute, gizonezko guztiek #nike-rebai eragin dugu.

#Nikerebai: arrebaren aldean ia ez nuen etxeko lanik egin amaren etxean, hamabi urterekin herriko festetan neska bati atzetik hurbildu eta titiak ukitu nizkion, hamaseirekin beste bati ipurdia ukitu nion. Koadrilakoekin neskak “sailkatu” ditut beren fisikoarengatik, beren itxura fisikoak deuseztatu ditut, gurean ere mutil ligoak –eta hitzaren zentzu onenean “kabroiak”– izan dira, baina neskak potro berotzaileak –ez bagenuen “ze puta” esan–. Behin putetxe batera joan ginen. “*El que no bote maricón*” kantatu eta “*neska hori tortillera da*” esan dut. Hainbat lagun emakumez-kori hitza zapaldu diot, ehun aldiz gutxietsi ditut. Heldu zaizkit wha-tsappera mila txiste txar, zein bideo matxista, eta ez dut neurri gogorrik hartu. Erasotzaile bat edo beste eza-gutu dut, ez dut jakin nola jokatu, eta bizkarra eman diot hari, neska erasotuari, eta egoerari berari.

Familia eta koadrila arrunt bateko gizonezko zuri hetero hegemonikoa: #nikerebai. #gukerebai. ■

Kontratu sexuala

CAROLE PATEMAN

Itzultzailea: Maialen Berasategi Catalán